

URRIA OCTUBRE

2015



Az
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

ÀURKIBIDEA

INDICE

ARTEA ETA KULTURA ARTE Y CULTURA

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

ZERGATIK EZ I ¿POR QUÉ NO WHY NOT JUDY CHICAGO?	5
---	---

ARTEA ETA EZAGUTZA ARTE Y CONOCIMIENTO

IKUSPEGI FEMINISTAK EKOIZPEN ARTISTIKOETAN ETA ARTEAREN TEORIAN IV. EDIZIOA IV. CURSO PERSPECTIVAS FEMINISTAS EN LAS PRODUCCIONES ARTÍSTICAS Y LAS TEORÍAS DEL ARTE	10
--	----

DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN DONOSTIA ZINEMALDIA EN AZKUNA ZENTROA	12
---	----

ZINEMATEKA

EGIN SALTO! IKUS-ENTZUNEZKOAREN BESTE MAPA BAT OTRO MAPA DEL AUDIOVISUAL	14
--	----

THEO ANGELOPOULOS	16
-------------------	----

BIdeOtik

IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA ATENDIENDO A OTRAS NARRATIVAS AUDIOVISUALES RAMÓN CHURRUCA FILMOGRAPHY	18
---	----

ARTE BIZIAK ARTES EN VIVO

DANTZAN BILAKA 2015	19
---------------------	----

LUKAS TIMULAK & DANTZAZ KONPAINIA 'DOT TO DOT' PROYECTO AUREO	20
---	----

DANTZALDIA 2015 TANIA ARIAS WINOGRADOW 'BAILARINA DE FONDO EN CONCIERTO'	21
--	----

SOINU-SORKUNTZAKO ETA INPROBISAZIOKO TOPAKETAK ENCUENTROS DE CREACIÓN SONORA E IMPROVISACIÓN MUSIKA ESPERIMENTAL BURUZKO ENTZUNALDIAK, HIZKETALDIAK ETA TAILERRAK AUDICIONES, COLOQUIOS Y TALLERES SOBRE MÚSICA EXPERIMENTAL	22
--	----

LORENA ÁLVAREZ Y SU BANDA MUNICIPAL	23
-------------------------------------	----

MEDIATEKA BBK

Aurrez Aurre LITERATURA-SOLASALDIAK DIÁLOGOS LITERARIOS DAVID AJA, ROSA MONTERO	25
--	----

Tallerra Taller GURE IMAGINARIOA KANTAGINTZAREN BITARTEZ	26
--	----

READING CHALLENGE	27
-------------------	----

Zientziateka	27
--------------	----

Bilbo Argazki 2015	27
--------------------	----

JARDUERA FISIKOKO ZENTROA CENTRO DE ACTIVIDAD FÍSICA

GINNASIO ETA IGERILEKUKO IKASTURTE HONETAKO BERRITASUNAK NOVEDADES DE ESTE CURSO EN EL GIMNASIO Y LA PISCINA	29
---	----

IN-BODY SISTEMA ETA BEGIRALE GEHIAGO FITNESS ARETOAN IN-BODY Y MÁS MONITORES EN LA SALA FITNESS	30
--	----

TAILERRAK TALLERES Sabel-dantza - Erditze ondoko pelbis-zorua	30
---	----

Xbody: JARRI SASOIAN 20 MINUTUTAN PONTE EN FORMA EN 20 MINUTOS	31
--	----

KANPO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN EXTERNA

'FILM SOZIALAK' ZINEMA IKUSEZINAREN NAZIOARTEKO JAIALDIAREN 7. EDIZIOA 7º FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE INVISIBLE 'FILM SOZIALAK	35
--	----

JAI! BILBAO UMOREZKO LITERATURAREN ETA ARTEAREN NAZIOARTEKO VI. JAIALDIA VI FESTIVAL INTERNACIONAL DE LITERATURA Y ARTE CON HUMOR JAI! BILBAO	35
--	----

MERKATARITZA GUNEA ESPACIO COMERCIAL

INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL

URRIKO EKITALDIEN EGUTEGIA CALENDARIO DE ACTIVIDADES DE OCTUBRE	40
---	----

PLANO PLANO	42
-------------	----



ARTE ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

ZINEMATEKA / CINE

ARTE BIZIAK / ARTES EN VIVO

ARTE ETA EZAGUTZA / ARTE Y CONOCIMIENTO

PROGRAMAK ETA JAIALDIAK / PROGRAMAS Y FESTIVALES

Through the Flower
© Judy Chicago, 1973
Sprayed acrylic on canvas
60 x 60 in. (152.4 x 152.4 cm)
Photo © Donald Woodman

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

ZERGATIK EZ / ¿POR QUÉ NO WHY NOT JUDY CHICAGO?

2015eko urriaren 8tik 2016eko urtarrilaren 10era
Erakusketa Aretoa
Sarrera dohainik

ORDUTEGIA

Astelehenetan itxita: (bi astelehen hauetan irekita egongo da: urria 12 eta abenduak 7)

Asteartetik ostegunera eta igandeetan:
11:00etatik 20:00etara

Ostiraletan, larunbatetan, jaiegunetan eta jaiegun-bezperetan:
11:00etatik 21:00etara

Komisarioa Xabier Arakistain

Del 8 de octubre de 2015 al 10 de enero de 2016
Sala de Exposiciones
Entrada libre

HORARIO

Lunes cerrado
(excepto Lunes 12 de octubre y 7 de diciembre)

Martes a jueves y domingos:
11:00-20:00h

Viernes, sábados, festivos y vísperas de festivo:
11:00-21:00h

Comisariado por Xabier Arakistain

‘Zergatik ez Judy Chicago?’ erakusketak ibilbide bat proposatuko ditu arte feministaren aitzindarietako baten lanean barrena, 50 urtean sortu dituen obren eta dokumentuen sailkapen baten bitartez. Artista gisa, arte-hezitzaile gisa eta idazle gisa egindako lanek elkarren artean duten lotura estua azpimarratuta, Chicagoren ibilbidearen ulermen holistikoa proposatuko digu, ibilbide hori artearen erakundea egituratzen duten instantzia guztiak bere gain hartzen dituen eta eraldatu nahi dituen diskurtso gisa ikusita.

Judy Chicago praktika eta teoria artistikoan aritzea lortu zuen emakumeen lehenengo belaunaldiaren zati da, AEBetan Feminismoaren Bigarren Olatu gisa ezagun den joeraren barruan. Testuinguru politiko, sozial, intelektual eta artistiko horretan, heredatutako jakintza guztiek gizonen dominazioa iraunarazten dutela konturatuta, zalantzan jarriko ditu Chicagok, eta ‘gabezia’ eta ‘desobediencia’ ideien arlora

La exposición ‘¿Por qué no Judy Chicago?’ presenta, a través de una selección de obras y documentos, un recorrido por los más de 50 años de producción de esta pionera del arte feminista. Incidiendo en la estrecha relación que mantienen su trabajo de artista, de educadora de arte y de escritora, propone una aproximación holística a su carrera que enfatiza la voluntad de la artista de operar simultáneamente en las diferentes instancias que estructuran la institución arte.

Judy Chicago forma parte de la primera generación de mujeres que se incorporaron a la práctica y a la teoría del arte junto a lo que en EE.UU se denomina ‘Segunda Ola’ del feminismo. En aquel contexto político, social, intelectual y artístico, en el que se cuestionaban los saberes heredados porque perpetuaban la dominación masculina, Chicago concibió su carrera en torno a las nociones de déficit y desobediencia. Será su frontal rechazo a

ERAKUSKETA



Mother Superette © Judy Chicago, 1963 | Acrylic on paper 19.5 x 26 in. (49.5 x 66 cm) | Photo © Donald Woodman

bideratuko du bere karrera. Baina badago ideia bat artista benetan berritzaile bilakatzen duena: patriarkatuaren aginduak betetzeko erabateko ukazioa da, emakumeak azpiratzen baititu, haien berezko gutxiagotasuna aldeztan eta 'destinoaren biologia' goraiatzen duten ideologiaren bitartez. Desobediencia feminista horrek kultur arloko iruditeria femenino aktibo baten gabeziari eta emakumeak historian positiboki kokatuko dituen narratiben gabeziari aurre egitera eramango du. Hala, bere lanaren ardatz gisa hartuko ditu bi gabezia horiek Chicagok.

Lehenengoa ikonografia femenino eta feminista bat sortzeko erabili zuen; harekin emakumeak irudikatu zituen eta hala, egungo erregimen bisualean maskulino unibertsal

acatar el mandato patriarcal que somete a las mujeres mediante ideologías que propugnan su natural inferioridad, y que preconizan que 'la biología es destino', lo que hará de ella una artista radicalmente innovadora. Su desobediencia feminista le revelará el déficit de representaciones femeninas de carácter activo en el imaginario colectivo, así como el de narrativas que sitúen en positivo a las mujeres en la historia. Chicago hizo de estos déficits los dos ejes principales sobre los que gira su trabajo.

El primero dedicado a la creación de una iconografía femenina y feminista que, representando a las mujeres, desvela, denuncia y desafía el falocentrismo que opera como masculino universal en el régimen

EXPOSICIÓN



Birth Tear from the Birth Project © Judy Chicago, 1982 | Embroidery on Silk 20.5 x 27.5 in. (52.1 x 69.9 cm)
Executed by Jane Gaddie Thompson | Photo © Donald Woodman

gisa aurkitzen dugun falozentrismoa salatu eta hari desafio egin zion. 60ko hamarkadaren hasieran sorturiko lehen lanekin eman zion hasiera ardatz horri; haietan ohartarazi zuen sexu-desberdintasuna —emakumeen bazterkeria, zapalketa eta esplotazioa oinarri hartzen dituen logika gisa ikusia— garaiko erregimen bisual nagusiaren zati ere bazela. Pixkanaka, Chicago iruditeria abstraktu bat sortzen joango da zirkulu zentral baten inguruan, emakumeak identifika daitezten lortzeko, geroago emakumeen genitalak berariaz irudikatuko dituen ikonografia bati bide emanda. Artearen munduko feminismo hasiberriaren urte horietan, artistaren helburua inposaturiko isiltasuna haustea izan zen, eta ukatutako nortasuna irudikatzea, baita emakume izatea zer den aztertuko

visual contemporáneo. Este eje arranca con las primeras obras que la artista produjo a principios de los años 60, en las que advierte que la diferencia sexual, entendida como la lógica que fundamenta la discriminación, opresión y explotación de las mujeres, está también inscrita en el régimen visual. Paulatinamente Chicago ira produciendo un imaginario abstracto construido sobre una forma central, a menudo circular, para dar paso a una iconografía que específicamente represente los genitales femeninos. En esos años de feminismo incipiente en el arte, para la artista se trata de romper el silencio impuesto y de representar la identidad negada, pero también de comenzar una exploración estética sobre qué significa ser mujer desde la experiencia personal, la perspectiva histórica y

ERAKUSKETA

duen esplorazio estetiko bati hasiera ematea ere, bere esperientzia pertsonalean, ikuspegi historikoan eta gogoeta filosofikoan oinarrituta.

Bigarren ardatza lehenengoarekin lotuta dago, eta historiaren inguruan mugitzen da. Chicagok historiagatik duen interesa ikasle garaietatik datorkio, orduan konturatu baitzen bere prestakuntza akademikoan ez ziotela emakumezko erreferenterik eskaintzen. Ondorioz, bilaketa prozesu bati ekin zion, pentsamendu feministaren historiaren barruan emakumeen genealogia bat lortzeko asmoarekin, bai artearen mundukoak, bai beste arloetakoak ere. Bilaketa horrek isla izango du Chicagoren lanean, bereziki 1970etik aurrera. Urte horretan jarri zuen abian bere arte-hezkuntzako lehen proiektuetako bat; haren oinarri nagusia kontzientzia feminista sortzea zen eta, hasiera batean, emakume taldeei bakarrik zegoen zuzenduta. Proiektu hori garatzen jarraitu du artistak, gizonak ere barne hartuta; horixe da, hain zuzen, artearen pedagogia-metodo feminista gisa ezagutzen denaren oinarria. 70eko hamarkadan, halaber, Arte Feministan mugarri izan diren hainbat lankidetzako proiektu gauzatu zituen; haien ondorio dira tradizioz emakumearen unibertsoarekin lotu izan diren teknika batzuk –jostea eta brodatzea– txertatzen dituzten hainbat artelan, hain zuzen emakumeen historia bisuala sortzeagatik bere kezka erantzun gisa. Emakumezko erreferenteen bilaketan, Chicagok bi aurkikuntza nagusi egin zituen; batetik, emakume handiak izan zirela garai guztietan, baina, horrez gain, guzti-guztiak ezabatu zituztela sistematikoki historiatik. Eta, horregatik, Chicagoren arte-sorkuntzen zati handi batek omendu egiten ditu –batzuetan monumentu eta guzti– historia androzentrikoak ukatu edo txikiagotu egin dituen emakumeen figurak edo lorpenak.

Historiarako hurbilketa berri batean, erakusketan

la reflexión filosófica.

El segundo eje, que interactúa con el primero, gira en torno a la historia. El interés de Chicago por la historia se remonta a sus años de estudiante en los que descubre perpleja que en su formación académica no se le ofrecen referentes femeninos. Inicia entonces un proceso de búsqueda en la historia del pensamiento feminista que le proporcione una genealogía de mujeres, en el arte y en todos los ámbitos de actividad, que en especial a partir de 1970, informa de una manera directa su trabajo. Aquel año puso en marcha el primero de sus proyectos educativos de arte, en los que la toma de conciencia feminista era su base fundamental y que aunque en un principio sólo se ofrecerán a grupos de mujeres, en una segunda etapa también incorporan a varones. A principios de los 70 también impulsa una serie de proyectos artísticos colaborativos que marcaron hitos en el Arte Feminista y que desembocaron en una serie de obras en las que destaca la incorporación de técnicas, como la costura o el bordado, que se asocian a un universo femenino, y que responden a su preocupación por la producción de una historia visual de las mujeres. En su búsqueda de referentes femeninos, Chicago no sólo constató la existencia de mujeres insignes en todas las épocas, sino que descubrió que sus figuras habían sido sistemáticamente borradas de ellas. De ahí que, buena parte de la creación artística de Chicago rinda homenaje, y en algún caso incluso en forma de monumento, a las figuras y logros de las mujeres que una historia androcéntrica ha negado o minimizado.

En una nueva aproximación a la historia, las piezas más recientes de esta exposición excavan en las religiones y en la denominada

bildutako piezarik berrienek erlijioak eta herri-kultura izenekoa aztertzen dituzte, ezagutzaren artxibo historikoak bailiran, eta agerian uzten dute, bereziki, Chicagoren begirada feministaren aberastasuna eta konplexutasuna. Begirada feminista da sexu-desberdintasuna beste desberdintasun batzuekin (arrazaz/etnia-, klase- eta adin-desberdintasuna) batera doala ahazten ez duen gizakion gizarteak behatzeko ‘metodo’ bakarra. Chicagok XXI. mendearen hasieran proposaturiko begirada horren helburua giza eskubideen egungo agenda birdefinitzeko eta ezartzeko lanean sakontzea da.

Azkenik, eta berriz ere «pertsonala dena politikoa da» feminismoaren esaldi ezaguna oroituz, erakusketaren izenak, Zegatik ez Judy Chicago?, dimentsio partikularretik harago joan nahi du, emakume artisten eta, zehazkiago, artista feministen errekonozimendu(ez)aren gaiari heltzeko. Dena den, erakusketaren izenburuak, bere dimentsio partikularrean, beste galdera bat planteatzen du: Zergatik Arte Feministaren aitzindari ospetsuetako batek, bizirik dagoen AEBetako artista ezagunenetako bat izanda, ez du lortu oraindik arte-erakunde hegemonikoen errekonozimendua?

Erakusketarekin batera mintegi bat egingo da, erakusketaren komisario Xabier Arakistainen eta Lourdes Méndez antropologo feministaren zuzendaritzapean. Bertan, Judy Chicagoz gain, beste hauek ere parte hartuko dute: Amelia Jones, Andrew Perchuk, Jane Gerhard eta Edward Lucie-Smith. Mintegian Judy Chicagoren obrak hitz egingo da, baita arte feministaren jaiotzaz ere, AEBetako mendebaldeko kostaldean, XX. mendeko 60ko hamarkadako bigarren erdialdean.

‘Zegatik ez Judy Chicago?’ Azkuna Zentroaren eta Bordeleko Arte Garaikideko Museoaren (CAPC) arteko koprodukzioa da, Penn State Unibertsitatearen eta San Franciscoko Arte Modernoko Museoaren (SFMOMA) lankidetzarekin.

Komisarioa Xabier Arakistain

cultura popular como si de archivos históricos de conocimiento se tratara y evidencian, de forma especial, la riqueza y la complejidad de la mirada feminista de Chicago. La mirada feminista es el único ‘método’ de observación de las sociedades humanas que no olvida que la diferencia sexual se produce en conjunción con la de raza/etnia, clase y edad. Una mirada que Chicago propone al comienzo del siglo XXI para ahondar en la redefinición y aplicación de la agenda contemporánea de los derechos humanos.

Recordando una vez más la máxima del feminismo ‘lo personal es político’ el título de la exposición ‘¿Por qué no Judy Chicago?’ pretende trascender la dimensión particular para abordar la cuestión del (no) reconocimiento de las artistas mujeres y, en concreto, el de las artistas feministas. En su dimensión particular, el título también evoca otra pregunta: ¿Por qué una de las legendarias pioneras del Arte Feminista, y una de las artistas vivas más populares de los EE.UU., sigue sin ser reconocida por las instituciones de arte hegemónicas?.

‘¿Por qué no Judy Chicago?’ es una coproducción de Azkuna Zentroa y el CAPC (Musée d’art Contemporain de Bordeaux), con la colaboración de Penn State University y el SFMOMA (San Francisco Museum of Modern Art).

Comisariado por Xabier Arakistain